

ZENBAT BURU
Jon Peli Uriguen

ERREPORTAJEA
Txarridunaren
50. urteurrena

GEHIGARRIA
Zaharrak-berri

MOTZAK
Mikel Alberdi,
Iñasio Iriondo
eta Iñaki Jaio
15 urte kartzelan



KIROLA
J. M. Fernandez
Karakatera VI.
igoerako irabazlea


KULTURA
Elgoibarko
dultzaineroak
lanez gainezka

BARREN

1999ko azaroaren 26a
VII. urtea - 300. zkia

ELGOIBARKO ASTEKARIA

TXARRIDUNA
1949-1999



BARRENen
300. zenbakia

"Lehen txarriduna, orain zalduna" (Esaera zaharra)

TXARRIDUNA

OSTATUA · JATETXEA

50. urteurrena



Azaroaren ran, zapatua,
goizeko 11:00etatik 15:00etara
egingo dugun TXERRIBODA^{ra}
gobidatuta zaudete denak.



Odoloste pintxo **a**
Txorizo pintxo **a**
Edaria



Guztiak ongi-etorriak izango zarete!

Mende aldakela

Badator, gainean daukagu mende aldaketa. Ditxosozko 2.000. urtea muturren aurrean ageri da. Zenbat istorio eta esames, zenbat astakeria eta gezur entzun ditugun mende aldaketa dela-eta. Aste honetan bertan, Estatu Batuetatik dator notizia, filme bat ikusi dela mundu guztia aztoratu duena. Mende aldaketak ekarriko omen duen hondamenak amerikarrei izugarritzko beldurra eragin omen diete, agintariak jendearen aurrean lasaitasun eske agertu behar izan dute.

Halako eromena nabari da munduko bazter guztietan, non leku konkretuetan urte berriari ongi etorria emateko ospatuko diren jaietan izateko, bidaia agentziek leku bakar bat bera ere lortzeko arazoak omen dituzte.

Mendea aldatu, milurtekoa aldatu, zenbakiak dira azken finean. Berdin da milurtekoa 2000. Urteko urtarrilaren lean edo eta urte bete beranduago hasiko den. Dirudiena da jendeak arrazoiak behar dituela bere txikitasuna aldarrikatu eta zerbaiten beldurrez bizitzeko.

2000. urteko efektuaz nork ez du zerbait entzun, zer den guztiz ondo jakin ez

arren? Egia da arazoa dela, eta arazo horri irtenbidea eman behar zaiola, baina ez da da gehiegizkoa ematen ari zaion sona? Egunero irakur edo entzun dezakegu zerbait ditxosozko gai horri buruz. Argi dago efektua saltzen jakin dutela behintzat (telebista, irrati, aldizkari,...). Inor gutxi daki 2000 efektuak zein ondorio zehatz

izan ditzakeen gure eguneroko bizitzan. Akaso ordenadoreek ziria sartuko digute, edo eta arazo txikiak jasan ditzakegu, baina ziur ez direla konponezinak, baldin eta hartu beharreko neurriak hartu badira.

Mende berriaren etorreraren zai gaudela, akaso aurten "urte berri on!" esan ordez "mende berri on!" esan beharko dugu mahatsa ahoan

" Mende berriaren etorreraren zai gaudela, akaso aurten `urte berri onli esan ordez 'mende berri esan beharko dugu mahatsa ahoan irentxi ezinik eta txanpain kopa eskuan daukagula?"

irentsi ezinik eta txanpain kopa eskuan daukagula? Datorren menderako planak egingo ditugu, beteko ez ditugun planei urte beteko muga jarri beharrean?

Ni, behintzat, ezezkoan nago. Planak epe motzera egitearekin nahikoa lan daukagunez, urte zaharrari agurra eta berriari ongi etorria beste guztiei bezala egiteko asmoa dut. Beraz, eta oraindik hilabete luze falta den arren, Urte berri on!!!

JON PELI URIGUEN

Atat hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nain duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com
Heibide informatikoa:
www.ihardun.com/barren

ARGITARAIZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Ion Eugi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Mattane Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KotAsoeuzAtteAK	Ainhua Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, AIIzol Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrulxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, AinIzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñlgo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourcles Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
BANAKETA ARDORADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGU	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDA1LUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



*gizarte-ekintza
obra social*

ff^o DANOBAT

koonli
GELIPO DANORAT

Baloreak

Gero eta gazte gehiagok gorrotatzen du bere gorputzaren itxura, eta pisuaren morroi bihurtu dira.

Edertasunaren ideia edo ideala garai bakoitzaren arabera aldatzen doa eta guri halakoa tokatu zaigulako, ahal izanda ere, hainbat gaztek ez du jaten, ez da behar bezala elikatzen eta anorexiak jota bizi da, edo irauten du.

Gaixotasun honek jotako %6 hiltzen omen da, eta %30ak ez du lortzen sendatzerik, gainera bakardadean murgiltzen da.

Zer ari zaigu pasatzen? Jaso dezagun burua eta argi ikusi aurrean jarri diguten mundu petral hori, ilusiozko mundua, mundu irrealia.

Emakumeak gero eta askatasun gehiago omen du, baina badirudi gorputzarekiko morrontza gero eta handiagoa duela eta gizonezkikoa gero eta gehiago, Komunikabideek, merkatuaren interesek, kapitalak, gure gizartearen motorrik ahaltsuenak, eragilerik handienak, du interes handiena gai honetan.

Dirua mugiarazteko edozer gauza egingo lukete batzuk.

Eta gu zer? Hain inozoak al gara?

Jarri gaitzen une batean gure barruari begira eta saia gaitzen gure izakera maitatzen, itxura zainduz eta osasunari duen garrantzia emanez.

DBHko talde bat

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guzliek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

- Auto gidari batek honako kexa hau bidali digu: "San Lorentzoko bidian jende asko ibiltzen da pasiaran eta antxintxika. Ia inork ez du `rellektante' edo argirik erabiltzen eta autuan guazenek ezin izaten ditzugu ikusi. Arriskua handixa da eta ezbeharren bat gertau aurretik zeozer in biharko genuke".
- Basarte kalean bizi den herritar batek honako kexa hau ekarri digu: "Herriko **puntu batzuetan zakarra, papera, beira eta brik-ontziak jasotzeko kontenedoreak jarri dituzten bitartean, Basarten zakarrontzi miserable bat baino ez daukagu.** Ez dakit nori dagoen kontenedoreak jartzea baina, paperak eta beirak kale erdian lagatzen hasi behar al dugu kontenedoreak behingoz jar ditzaten? Badakit Basarte auzo berria dela, baina dagoeneko herritar dezente bizi gara eta aintzat hartzen hasteko ordua dela iruditzen zait".



- **Herritar batek Santa Zezilia egunaren aitzakian Udal Musika Bandak igandean, hilaren 2lean, eskaini zuen kontzertua txalotu nahi du.** "Kontzertua oso ona izan zen eta oso gustora egon nintzen bertan. Hala ere, hobetu daitekeen gauzatxo bat dagoela uste dut. Izan ere, Herriko Antzokira sartzeko denbora asko itxaron genuen kanpoan. Arrazoia zein izan zen ez dakit baina egunotan egin duen hotza ez da kalean geldirik egoteko modukoa. Beraz, arduradunei hurrengo batean ateak lehenago ireki ditzaten eskatu nahi diet".

B AI, E SAN?



Nren Arrate
APpleta
EAko kidea

Eusko Alkartasuna alderdiak kongresua egin du pasa den asteburuan Irufiean. Alderdi barruko **banaketak direla-eta, batzarrek bazuen interesik, baina inork** gutxik uste zuten Karlos Garaikoetxea presidenteak kargua utziko zuela. Aiderdiko lehendakari eta fundatzailearen ezusteko erabakiak zur eta lur utzi zituen alderdikideak. Hori dela-eta kongresuan izan zen *Miren Arrate Arrieta* Elgoibarko EAko kidearekin hitz egin dugu.

- Batzarrean izan zinen, ezta? Nola hartu zenuten Garaikoetxearen erabakia?

Ez genuen espero eta sorpresaz hartu genuen, kongresuan zeuden beste guztiek bezala. Egia da urte asko daramatzala politika munduan, mutur muturrean. Beraz, ulertzekoak dira arrazoio pertsonalak eta nekea. Baita jende berriari paso eman behar zaiola ere, ezin baitugu betiko eduki, nahiz eta gehienok ala nahi izan.

- **Garaikoetxeak EA alderdia berriztapen baten beharrean dagoela azaldu zuen.**

Jende berriaren beharra beti dago. Hala ere, Garaikoetxeak bere presidente kargua lagatzeak ez du erretiratu egiten denik esan nahi. EA alderdian lanean jarraitzen du, baita parlamentarioa izaten ere. Bestalde, bozeramailea ere hada eta behar dugun guztietan hortxe egongo da.

-**Labur-labur, zein da Garaikoetxeak euskal politikan izan duen pisua eta eragina?**

Pisu eta eragin handia izan du, dauka eta izango du. Garrantzi handiko lana egin du, bai lehendakari bezala, bai europarlamentari bezala eta baita EAko presidente bezala ere. Askok zor diogula deritzogu.

-**Zer iritzi duzu alderdi barruko ofizialista eta berritzaileen arteko banaketari buruz?**

Presidente izateko 2 hautagai egoteak bere aberastasuna dakar. Ezadostasunak egotea eta agertzea, normala eta aberasgarria dela uste dugu. Beti ere eztabaidarako askatasuna dagoen bitartean, eta hori argi gelditu da V. kongresuan. Eztabaidak alde batera utzita, orain arte bezala, euskal gizartearen alde lanean jarraitzeko asmoa dugu, Begotia Errazti gure presidente berriarekin.



21,44€ 11•4 vs. C, .

Olaso industriaidea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 20870 ELGOIBAR

EKANIZATUEN TAILERRA

JOSE, I; (tafia 1
(rxema)

-**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoak, etab_ jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 Mobila: 629 44 23 14

TXARRIDUNA

Pedro Urain eta Fennina Arakistain senar-emazteak 1949. urteko azaroaren 28an ireki zuten Txarriduna jatetxea. Beraz, datorren domekan, hilaren 28an, 50 urte beteko ditu Madalan kokatuta dagoen ostatu ezagunak. Izan ere, nork ez du ezagutzen Txarriduna jatetxea Elgoibarren. Herriko ostatu bakarretakoa izanik, Elgoibarren gaua pasa duten hainbat kanpotarrek hartu dute ostatu bertan. Baita bezero ospetsu mordoak ere,



Mugerza kroseko korrikalariek esaterako. Pedrori eta Ferminari beraien 4 seme-alabek lagundu zieten negozioa aurrera ateratzen: Santik, Maritxuk, Maria Jesusek eta Imanolek, alegia. Gaur egun, berriz, Santiren alargunak, Ines Mendikutek, eta bere seme alabek daukate negozioaren ardura. Guk beraiekin eta Maritxu Urainekin hitz egin dugu Txarridunaren historiari buruz.

7xarriOfuna izenaren /alorria

Pedro Umin, Mendaroko Alkorta baserriko semea, eta Fennina Arakistain, San Lorentzo auzoko Sorueta baserriko alaba, senar-emazteak ziren. Pedro txeni zalea edo tratalaria zen, txerriak saldu eta erosten baizituen heziz-herri. Maritxu Urain Pedro eta Fenninaren alabak azaldu digunez, "duela 50 urte jatetxea ireki gendunian Txarriduna izena jartzia erabaki zaban aitzak, bere ezizena zan-eta. Aitxak hasitako tradiziva jarraituz, aitxa ere txarizalia zan. Federiko txarri kapatzailia eta bera sozibak zian eta plazetan saltzen zitxuen txarriak baseniz baserri banatzen ibiltzen zian. Jatetxiari izena jartzera kuan, 'hirubide' edo 'toki eder' moduko izenak jartzia pentsauren, Txarriduna izena

jarri ezkerro, bera ezautzen zabanek behintzat etorriko ziala esan zaban aitzak".

3fasiera yoyorra. %;

Hasierak beti izaten dia gogorak, eta Txarridunakoentzat ere hala izan ziren. "Aitzak eta amak ez zakaten jatetxe bat martxan

nola jarri idea handirik. Aman haserrixan, Soruetan, merixendak eta sagardua zerbitzatzzen zitxuen domeketan, baina hortik aparte ezer gutxi. Semiak ere gaztiak ginan eta esperientzia gutxikuak". Gauzak horrela, Txarridunako fundatzaileek ez zuten oso argi ikusiko jatetxearen martxa ona, eta beraien bi semeak, hau da, Santi eta Imanol auto-mekani

nika ikasketak egitera bidali zituzten Debara. "Jatetxian lekua sobran zauenez, aitzak garaje bat jarri zaban gaur egun jangela handixa dauan tokixan. Jaletxiak funtzionatzen ez bazaban semiek bizimodua ateratzeko beste aukera bat eukitzeko in zaban. Hala ere, negozioa gutxinaka martxa ona hartzen zoiala ikusi eta ez zan garajia jartzeko biharrikan egon, Kainioientzako aparkaleku moduan erabilizen hasi ginan. Cristobal Alvarez eta Manuel Azpitartek gordezten zituzten kamioiak gure garajejan". Bestal-



Argazkian Pedro Urain eta Fermin Arakistain Txarridunako fundatzaileak (goiko argazkian ere ageri dira) eta beraien lau sente-alabakin ostatu aurrean ateratako argazkian.

JO urieh'o isiort'a

de, Imanol pelotaria zen eta ameriketara joan zen zesta puntan jokatzera. Bere anai-arreba eta gurasoak, berriz, jatetxeko lanetan buru belarri aritu ziren aurrerantzean.

7Carniar9aineo anixoa-ian ospeisua'

Negoio familiatra ireki eta urte batzutarra, Elgoibar ingurueta elektraindarra sartzen ari ziren langileekin eta herritik pasatzen ziren bidaiariekin bezeroen kopurua igoz joan zen. "gero eta jende gehixo etortzen hasi zan eta garajeko kamioiei esku frenua kendu eta kanpora ateratzen genitxun leku gehixo eukitzeko". Maritxuk irribarre batez gogoratzen ditu garai haiek, "Aste Santuan itxen gendun antxoa jana itzela izaten zan, oso politxa. Lehen beste garai batzuk zian eta jendiak ez zakan kanpora irtetzeko ohiturarik Aste Santuan. Ostiral Santu egunian haragirik ezin zanez jan, antxoak jateko ohituria zuan. Kamioiak garaje barruan eoten zian eta mezia entzutera jaitsi zian baserriarrei, eta inguratzen zian beste hainbat herritumerei jaten emateko, kamioi gainetan jartzen genitxun mahaixak. Momentu ahaztezinak zian. Antxoa janak oso ezagunak zian eta seguru jende askok ditxula goguan oindiokan".

afriChli2 CZ osialuaren sol-rez-a

Gaur egun 30 logela inguru ditu Txarriduna ostatu-jatetxeak, baina hasieran taberna eta jatetxea bakarrik zituen. Inesek azaldu digunez, industriaren hazkundearekin batera 70. hamarkada inguruan hasi ziren ostatua eskaintzen, "Elgoibarrera lanera etortzen zan jendia lo itxeko leku eske hasi jakun. Guk pare bat logela bakarrik genitxunez, logela bat libre zaken herritarrengana bialtzen genitxun. Lehen holako gauzetarako konfiantza gehixo zuan eta jendiak seme bat falta zitzaielako-edo, logela bat libre bazakan guregana etortzen zian. Elgoibar osua ostatu handi baten modukua zan, izan ere, Errosario edo Santa Ana kalietan lo itxen zaben klientiak genitxun".



Txarriduna jatetxe-ostatullo arduradunak eta langileak agertzen dira argazkian.

"Biajantiek 'cuartel general' moduan hartzen zaben Txarriduna eta hemendik mobitzen zian hara eta hona. Garairik onenetan 80 apopilo eukitzera heldu ginan"

9arczil4 oparoena'

Industria indatrat hartuz joan ahala. Maritxu asko akordatzen da lantegietako sirenak eguerdiko 12:00etan jotzen zuen garaiaz, "sireniak jo orduko langile danak batera irtetzen zian. Prozesivan zoiatzela ematen zaban. Mendaro, Deba, Azkoiti eta inguruko herrietako langileek Txarridunan bazkaltzen zaban eta azken trena hartuta bueltatzen zian etxera. Biajantiek, berriz, "koartel generar moduan hartzen zaban Txarriduna eta hemendik mobitzen zian hara eta hona. Momenturik onenetan, 80 'apopilo' edo kliente fijo eukitzera heldu ginan". Lan asko izan arren giroa aparta izaten zela azaldu digute Maritxuk eta Inesek, "Langileek ordu bat eta erdi bakarrik zuten bazakaltzeko eta denborarik ez galtzeko kartak eta tapetia mahai batian preparauta eukitzen genitxun. Norbaitxek urtiak betetzen zitxuanian oso ambiente politxa sortzen zan.

Herri askotakuak zianez, ospakizunetarako ez zaben asteburuetara itxoitzen. Garai hartan soberano botilia erdira ateratzen zaban urtiak betetzen zitxunak, eta amaitzeko astirik ez bazaken arraixia in eta urrengo egunian amaitzen zaban. Bezeruekin harreman estua euki izan dou beti".

ijuye, za, 76,0seo horrikalarã

Txarridunatik bezero famatu asko pasa dira, baita txapeldun olinpikoak ere. Izan ere urtero Mugerza krosa dela-eta munduko korikalari onenek txarridunak hartzen dute ostatu. Mamo Wolde eta Haile Gebresselasie etiopiarrek, Domingos Castro portugaldarra, Eamon Martin britainiarra, Mariano Haro eta beste abar luze bat pasa dira Txarridunatik. Krosarekin lotura handia izan du betidanik. Lehen adibidez, sari banaketa bertan egiten zen.



arrigo

Denborarekin galduz joan den beste ohitura bat 'Txarribodena' izan da, Urritik aurrera eta 5 egunetik behin, Pedro Urain "Txanidunak" baserritarrei saldutako txerriak ondo gisendu ondoren, beniz ere erosten zizkien. "P. Zabala matarife edo ganadu hiltzailiak atari aurrian hiltzen zitxun astelehenetan, goizeko 6:00etan. Lehen txerrixa bezeruen artian eta Txanielunara hurbiltzen zian guztixekin banatzen gendun. Bokadilluak dohainik ematen genitxula esanez ohar bat jartzen gendun, eta jatetxetik pasatzen zian kanpotarrak hanitxuta gelditzen zian". Baba gorrixak txanikixakin prestatzen genitxunian ere estimazio handixa eukitzen zaben eta baitxa idi txuletek ere Azaldu digutenez, txern handi eta pisutsuak hil zituzten, tartean 338 kg. tik gorakoak ere bai.

Oliura zici cliyyjgerres4uraluz

Gauzak asko aldatu dira Txarriduna ireki zutenetik gaur arte, 50 urte ez baitira alperrik pasa. Hala ere, Txarriduna jatetxe-ostatuaren historia eta xarmaz gozatu nahi duen edonork, domekan, azaroaren 28an, izango du aukera. Izan ere, aspaldiko ohitura bat berreskuratzeko asmoa dute, "txanibodarena", alegia. Domekan ez dute txerria jaterxe atarian hilko, zorionez gauza batzutan aurrerapenak izan baitira, baina inguratzen den edonork txorizo eta odoloste pintxoak jasoko ditu.

A2KENA...,,e, INAUGURAMA



**gaur, hilak 26;
gaueko 24:00etatik aurrera**

**TXANPAN KOPA DOAN eta LAZARO TORRALBA
sonero kubatarraren KANTALDIA.**


**Tango eta salsa exhibizioa. ARLEN
salsa-irakaslearen DANTZA-ERAKUSTALDIA,**

Zatoz as Olaiu 9 wilma Altoez pztzewa,

10

35.000 farnilia baino gehiago pobrezian bizi diPa Euskal Autonomi Erkidegoan.

IkuMAn Eczufi soldziorik pobrezivil



IMANOL ROORIGUEZ
48 urte, mekanikoa

Badu konponbidea , beste gauzetan hainbeste diru ez oastatzea. Arazoa ez da men pobrezia dagoela, kanpoko laguntzen ari diala eta etxeako ez dia arduratzen.



MIGUEL ORDOYO
72 urte, jubilatua

Pobreak denok gara, baina batzuk beste batzuk baino gehiago. Aberastasuna gaizki banatuta dago. Baina niri bizitzan inork ez dit ezer ere eman .



PILAR ZABALA
71 urte, jubilatua.

Instituziuek eta bakoitzak ere bere arduria hartu bihar dau. Batzuek gehixegi dakabe eta beste batzuek falta. Hortarako ondo egongo zan organizazio bat ipintzia.



MARIOLA MATEOS
25 urte, komertziala

Hori instituzioek konpondu beharko lukete erabakiak hartuz. Guk zergak ordaintzen ditugu eta logikoena eurek kontu hauetan inbertitzea izango litzateke.



ELADIO BLANCO
49 urte, langabetua

Denok piska bat emango bagenu, konponbidea hurbilago egongo litzateke. Hirugarren Mundurako egiten den bezala, diru bilketak egin beharko liriateke.



JOSUNE URRUTIA
35 urte, etxeoandrea

Instituziuek lagundu in bihar ko leukie eta diru kopura bat eman. Armamenturako ez litzake ezta pezeta bat ere gastaui bihar, diru hori pobrien tzako izen biharko litzake.

Miopia

Excimer laser

Lasik

Jose Ignacio Recalde Yurrita

Mediku Oftalmologoa

Laserrarekin interbentzioak BILBON

Urtzaile kalea 2, 1 • EIBAIR Tel.943 20 18 44

Peque choll



ft.t~ttzaZa , auz.&ff

"AURREZTU EZAZU BERRI-BERRI dagoena EROSITA!"

Jantziak (0-16 urte) - Haurrentzako den dena • Haurdunaldirako jantziak • Mozorroak
Jostailuak • Oinalak • Liburuak • Kaseteak • Bideoak • Dekorazio osagarriak

Isasi, 13 • EIBAR • Tel. 943 20 03 10

Interesatuko zaizu!!

Ez bota...Ez gorde...Ez oparitu...

SALDU!!

• Parreldako hilisio Taldeak "Elkartasun danda" irektho du asteadoeneak abenduaren lean

Parrokiako Misio Taldeak aurten ere, *Mercadeco* eta *Coprodeli* Gobernuz Kanpoko Erakundeekin lankidetzan, elkartasun denda irekiko du. Denda hau abenduaren letik urtarrilaren 5era, biak barne, irekita egongo da Unzueta familiak Errosario kalean utzitako lokalean. Bertan, kakaoa, kafea, artisau lanak etab. salduko dira. Denda hauen bidez, Hirugarren Munduko produktoreei bidezko prezioak ordaintzen zaizkie eta bide batez, produktu hauek ekoizten dituzten lurraldeetan beharrezko proiektuak finantzatzen dira. Orduategia honakoa izango da; lane-gunetan, goizeko 10:00etatik 12:00etara. Ostiraletart, arratsaldean ere bai, 17:30etik 20:00etara. Larunbatean, aldiz, goizeko 10:30etik 13:00etara.

Mikel Alberdik, Inazio Iriondok eta Iñaki Jaio 30 urte bete diturle kartzelan

Benito Lertxundiren kontzerturako sarrera guztrak salduta daude



Mikel Alberdik, Inazio Iriondok eta Iñaki Jaio, Elgoibar-ko hiru euskal preso politikoek bihar, azaroaren 27an 15 urte beteko dituzte kartzelan. Hori dela-eta, Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeak ekitaldiak antolatu ditu astebukaera honetarako. Hasteko, ostiralean, hilaren 26an, gaueko 22:00etatik aurrera, Herriko Antzokian, preso politikoen senideei omenaldia egingo zaie eta jarraian kantaldia izango da Benito Lertxundi abeslariaren eskutik.

Larunbatean, hilaren 27an, eguerdiko 13:00etan, Plaza Handian, kontzentrazioa egingo da Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta, "Amnistia osoaren alde, presoak etxera" lelopean. Ondoren, arratsaldeko 19:00etan, Gazte Asanbladak antolatutako "Kazetrolada" izango da herriko kaleetan. Hori bukatzean, jaialdia egingo dute Gaztetxean gauera arte.

Iñaki Jaio, Mikel Alberdi eta Inazio Iriondo 1984ko azaroaren 27an atxodotu zituzten. Hirurek 30 urte baino gehiagoko kartzela zigorra jaso ostean, bai Iñaki Jaio eta baita Mikel Alberdik ere zigorraren hiru laurdenak beteta dituzte eta ondorioz, Estatu espainiarreko legediaren arabera, kalean egon behar lukete. Inazio Iriondo, aldiz, 15 urte hauetan, 1. graduko baldintza gogorretan eduki dute eta ez diote utzi kartzela egunak aurreratzeko. Urte erdi barru beteko dituzte zigorraren hiru laurdenak Iriondok.

Batera plataforma

Bestalde, euskal presoen euskalherriratzeari elkarrekin eskatzeko *Batera* plataforma sortu da Elgoibarren. Plataforma honen barnean erakunde ezberdinak daude: EAJ, EA eta EH alderdiak, *Elkarri*, *Elgoibcu Gazte Asanblada*, *Ern9tavo*, ELA eta LAB sindikatuak... Plataforma honen lehenengo ekintza, gaur, ostirala, 19:30ean egingo duten manifestazioa izango da.

50 lagun inguruk bat egin zuen Gutun tonlalaren Aldeko ibilaldiareldn

Gutun Sozialaren Aldeko ibilaldia Elgoibarrera iritsi zen joan zen zapatuan, eta 50 elgoibartar inguruk bat egin zuten berarekin. Madalan haren zain egon ostean, elkartu eta manifestazioan joan ziren herriko kaleetan. Plaza iristean, pobrezia aurkako martxa honen nondik norakoak ezagutarazi zituzten. Bertan bildutakoek salda dastatzeko aukera izan zuten eta ondoren, ibilaldiak Eibarrerako bidea hartu zuen. Lanik ez dutenentzat oinarritzko soldata eskatzen duen ekintza hau hilaren 27an bukatuko da Bilbon, Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren.



Herriko kaleak manifestazioan zeharkatu ondoren, Gutun Sozialaren aldekoak Plaza Handian kontzentratu ziren.

BARREN-ek 300. zenhakia argitaratu du aste honetan

BARREN aldizkariaren 300. alea kaleratu dugu aste honetan. 1992ko abenduaren 24an sortu zenetik, astero astero, hutsik egin gabe, elgoibartarren eskuetara iritsi da BARREN herriko berri emateko. Aleak bata bestearen atzetik etorri dira betetzear dauden 7 urte hauetan eta azkenik 300. zenbakira heldu gara. Aldizkaria atera zenetik lanean pertsona asko aritu bada ere, gaur egun BARREN egiten dugun guztiok, hasierako ilusio eta gogo berdinarekin ari gara. Aurrerantzean ere hala segituko dugu, zuen, elgoibartarren estimazio eta babesa daukagun bitartean, beste horrenbeste ale eta gehiago betetzeko.



Pepe Reik Ardi helua aldizkaria aurkeztu du

Joan zen asteartean Ardi beltza aldizkariaren aurkezpen hitzaldia egin zen Kultur Etxean. Bertan Pepe Rei kazetariak hitzegin zuen, 15 lagun ingururen aurrean. Reik ikerkuntza kazetaritzaren beharra azpimarratu zuen, agerian ez dauden ustelkeria kasuak iritzi publikoari ezagutarazteko. Ardi beltza hilabetekaria, Egin egunkariko ikerketa taldeko kazetari gehienek sortutakoa da.



Netto merkatalgunea ireki dute

Lerunen kokatuta dagoen Netto merkatalgunea handia jadanik zabalik dago. Astearte iluntzean inaugurazio ofiziala izan zen eta bertan Elgoibarko alkateak, Guillermo Garatek eta alkateordeak J. M. Oruesagastik hartu zuten parte, merkatalguneko ordezkariekin batera. Asteazkenean, berriz, jendearentzat ireki zituen ateak. Netto merkatalgunea Unialco supermerkatu etxeko partaide da. Elgoibarko den-da erraldoi honek 1.700 metro karratuko azalera dauka eta 61 pertsona arituko dira bertan lanean.

Ghto goxoa izan zen *throw* Literatur Talded antolatutake poesia emanaldian



30 Iagunetik gora bildu zen joan zen ostegunean, hilaren 18an, *Urruzuno Literatur Talde*ak antolatu zuen "Poesiaren alde, poesiaren aurka" emanaldian. Gerardo Markuleta, Arantza Ozaeta,

Kirmen Uribe eta Iban Zaldua euskal idazleak izan ziren poemak irakurri zituztenak. Banan banan denetariko poemak irakurri zituzten idazleek eta poesiaren aldekoen eta aurkakoen "Iehiaren" testigu izan ziren bertara azaldu zirenak. Poetak eta entzuleak giro goxoa egon ziren eta amaieran gustura aldegin zuten.

Musikoeak Santa Zezilia omendu dute

Joan zen astelehenean, hilaren 22an, Santa Zezilia eguna izan zen. Hori dela-eta, musikoen zaindariaren omenez, ekitaldi ugari egin zituzten Elgoibarko musikoeak. Esaterako, Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten, eta baita Udal Musika bandak ere. Itxaropena abesbatzak kantu saioa egin zuen eta astelehenean bertan, Ikastolako ikasleak musika jotzen ibili ziren herriko kaleetan. Argazkian, Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleak ageri dira Herriko Antzokian.



• Akeyhaserrilik Arraistabaserrirako bklea egingo du Uddak

Udalak Akey baserritik Arraista baserrirainoko bidea egingo du aurki. Lan honen helburua zera da: San Pedro auzoan, mendi hegalean kokaturik dauden Aitz-bizkar, Ipintza, Akey eta Egiko bizilagunei, San Pedroko errepidera **irteera bat** eskaintzea. Izan ere, gaur egun, baserri hauetako bizilagunek Sigmara jaitsi behar dute lehendabizi eta gero Santa Klarara joan, hango errepidean gora San Pedrorantz joateko. Horrek, noski, eragozpenak sortzen dizkie aipatutako baserritarrei eta horregatik bidea erraztu nahi zaie.

Lan honek, gainera, badu bigarren helburu bat ere. Behin errepidea eginda, bi errepideak martxan daude, haietakoren bat trabatuta edo gelditzen bada, bestea erabiltzeko aukera izatea nahi du Udalak. Proiektu honen finantziarioa honela egingo da: DEBEMENek %55 ordainduko du eta Udalak, aldiz, %45, hau da, 900.000 pezeta.

Bestalde, San Pedron, frontoi inguruko egokitze lanak aurrera doaz. Probalekuko hesia jarri da, esertzeko bankuak, elbarrituentzat frontoira joateko bidea egin da eta zuhaitzak landatu dira. Halaber, San Pedron basenitatTek egoitza edukitzeko Udalak 675.000 pezetako dim-laguntza eman du.

Elisko Jaurlaritzall 8 pezelako dirullaguntza eman dio Udalari Alde Za launga berritzeko

Lehenengo lana Alde Zaharrak zein itxura edukiko duen zehaztea da

Vusko Jaur- laritzall 8.295.210 pezetako diru-laguntza eman dio Elgoibarko Udalari. Diru hau hirigunea berritzeko plangintza berezian erabiliko da. Zortzi miloi hauek, **DEBEGESA** eskualdeko erakundearen bitartez bideratuko dira. Izan ere, Guillermo Garate, gaur egungo Elgoibarko alkatea, **DEBEGESA**ko burua izan zenean, zaharberritze lan hauen ardura hartu zuen erakundeak honek.

Diru honi esker, etxeen eraikuntzarako eta zaharberritzerako arauak zehaztuko dira. Horrek, hiriguneak zer nolako itxura eduki behar duen argitzen lagun-



Dirulaguntza honek plangintza honetan lehenengo urratsak emateko balioko du.

duko du. Izan ere, Guillermo Garate alkateak adierazi duenez, "lehenengo eta behin herriko Alde Zaharrak zein itxura eduki behar duen zehaztu behar dugu".

Dena dela, 8 milioi pasatxoko dirulaguntza hau, abiapuntua baino ez da. Udalaren asmoa, Guillermo Garate alkateak azaldutakoaren arabera, hirigunea berritzea da. Gainera, ez arkitektura mailan bakarrik, baita gizarte eta maila komertzialean ere. **Baina** horretarako dirutza handia behar da. Ho-

nakoa, beraz, behar den diru kopururako zati txiki bat baino ez da. Hala eta guztiz ere, hirigunea dotoretzeko plangintza berezi honetan lehenengo pausoak emateko aukera emango du.

Bake Epailea izateko eskaera egiteko epea zahalik dago

otere Judizialaren Lege Organikoaren 99tik 103ra bitarteko artikuluen eta Bake epaileen ekainaren 7ko 3/95 araudiaren arabera, Udaleko plenoari dagokio herri honetako Bake Epailearen ordezkoa izango dena izendatzea. Beraz, azaroren 23tik hasita 15 eguneko epea dago legezko baldintzak betetzen dituzten pertsona interesatuek Udaletxeko idazkaritzan idatziz eskae-

ra egin dezaten.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Nazionalitate espainiarra edukitzea, adin nagusikoa izatea eta Botere Judizialaren Lege Organikoak zehazten duen ezintasunik ez edukitzea.
- Epaile lanak betetzeko, inkompatibilitaterik eta debekurik ez edukitzea.

Iriondo TABERNA 1

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 - Tel: 943 74 00 15

4#Anch(stegui s.a.)

ZERAMIKAK

Erakuskela eta bulegoa: Antonto Arrillaga, 6-6 behea 83 P. K. 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia: aaso industrialdea Olasope, 5 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71



Pako Arrizabalaga

"ItanaKua man in doun biaje irmrPsinnantiPna"

Pako Arrizabalaga gonbidatu dugu aste honetan gehigarriko atari honetara. Baina, joan zen astean hitz egin genuen berarekin, izan ere, aste honetan Kanariar Uharteetara joan baita. Pakok oso gustuko du kostaldea eta kostako leku ezberdinetan ibili da andrearekin batera, bai jubilatuta eta baita jubilatuta aurretik ere. Hala ere, aitortu digunez, Italiara egin zuen bidaia izan da orain artean gehien gustatu zaiona.

-Jubilatu ondoren eta aurretik ere bidaiatu duzue

Asko ez, baina jubilatuta aurretik ere mobitxu gera. Aurretik, Benidorm-en, Valentzian, Galizian eta Bartzelonan ibiltzen ginan. Kostako tokietan ibili ginan: Mailorkan.. horrek danak in ditxugu jubilaue aurretikan. Eta jubilaue gero, por ejemplo, oin bi urte Sevillan egon ginan eta astebete pasau gendun bertan.

„12apc zuen Kontura euji.

IMSERSOKorikan batere ez dou in. Hiru edo lau urtian apuntau gera baina bategatik edo bestiatatik ez jaku tokau. laz, por ejemplo, apuntauta geunden, eta etorri zitzaten aurretik ezetza. Gero beste baterako baietza etorri zan baina operau biharra izan naban eta suspendidu bihar izan genduan. In ditxugun biaje guztiak geure kontura in ditxugu.

-KnstMelen emstatzen zaizue ez&

Jeneralian, udan kostaldera mobitxu izan gera. Oin ere, Kanarietara guaz. Lehenao, Kanarietara junda gaude, Palma de Gran Canaria eta Tenerifera, bixetara, oin dala urte mordua. Neri gehixenbat kostia gustatzen jata.

-Ez da berdina jubilatuta egonda edo tanean ari zarenean bidaiatzea.



-Oin artian, lanian ibili ginan jubilaue aurretik, eta udan, agostuan in bihar izaten zian biaje guztiak. Jubilaue aurretik, Benidorm-en hiru aldiz egonda gaude, Gandian, Valentzian, Galizian ere bai. Orduan

biajiak agostuan izaten zian. Oin, berriz, edozein sasoi-tan, udaberrixan... Epoka epelian gehixo itxen ditxugu. Julixuan eta agostuan ez, orduan Laredon egoten gera.



Pako Arrizabalaga Erromara egindako bidaiaren ateratako argazkian.

Beruenan dan epokan ez douz biajiak itxen. Nahi danielan batera edo bestera, oin libertade gehixao daukagu.

-Tenerife, Puerto de la Cruz eta hoiak politxak die, dana, jardinak-eta oso politxak ipinitxa daude. Andaluzia al-dian, kanpua edarra ikusten da baina ostian mendi pobriak ikusten dia generalmente. Neri gehixen Kataluinia partia gustau izan jata. Berdia da, hau modukua, baina kala asko dakaz eta ikusteko paisaje politxak dakaz. Asko gustau jatan Mediterraneo parte hori, Kataluinia aldia. Benidorm aldia-eta, gorrixak dia, hotela eta hotela ikusten dia, turismorako preparautako gauzia da baina paisajia ez da hain politxa.


Saina penintsulatik kanpora egindako bidaia bat

-In doun biaje inpresionantiena iazkua izan zan, Italiara indakua. Hor, Erroman, Venezian, leku guztixetan monu-mentu ikusgarrixak ikusten diaz. Handik oso inpresio onakin etorri ginan, Guk ez dou ikasi holakuak apreziatzen baina giakin zuazengan, ondo esplikatzen dizue eta ateratzen diozu jugua gauziari. Asko gustau jatan. Hamar egun in genduzen: Erroman lau, Venezian bi, Florentzian bi eta Milanen beste bixak. Asko ibili ginan, goizian goiz jaiki eta esposizivak, museuak ikustera juten ginan egunero. Hortik, gero, beste leku batzuetara jun ginan, Kapriko islara pasau ginan barkuan eta leku bolkanikuak ere ikusi genduzen. Atentziva deitzen dizu, "hau da gauzia", esaten dozu, leku diferentia dalako.

Rosario Iriondo:

"Berriz ere jaixoko banintz, enfermeria izango nintzake gaixuekin egoteko"

Rosario Iriondo 40 urtetik gora egon da enfermera lanean. Bilbon hasi zen ATS lanean eta ondoren, Elgoibarren jardun zuen Sigma lantegiko botikinean eta baita bi anbulategietan ere. Beretzat oso garrantzitsua izan da gaisoekin harremana edukitzea, "neretzako gaixuekin egotia gauza haundixa izan da" aitortu digu.



Rosario Iriondo 40 urte baino gehiago izan da enfermera leku ezberditan.

-Goiz hasi zinen lanean, ezta?

- Ni lanian 16 urtekin hasi nintzan, Bilbon. Lana eta ikasi, bixak batera in nitxuan. Ni aitxarrik gabe geratu nintzan 8 urte nakazean. Nere ama Bilbora jun zan inude eta ni hemen geratu nintzan izeba batekin eta osaba batekin 16 urte arte. Gero, nere ama etxe batian mediku zauanez, ni Bilbora jun nintzan. Orduan hasi nintzan ikasten. Goizari juten nintzan Basurtora eskolia hartzera eta arratsaldian sekretaria lanak itxen nitxuan. Ondoren, 19 urtekin enfermeria, ATS ikasi naban eta han, Bilbon egon nintzan 6 urtian, ATS lanian eurokin.

-Ondoren, Elgoibarrera etorri zinen, Sigma lantegira.

- Bai, hona etorri ginan bizitzera, Elgoibarrera. Artetxan aukeratu genduan etxe bat eta hara jun ginan. Orduan 2 urte *Sigman*, botikinia lanian egon nintzan, ATS moduan. Mediku bat eta bixok egon ginan. Oso lasai egon nintzan *Sigman*. Bertan oso lan gutxi in naban, ez zalako egoten heridu graberik. Behin grua bat jausi zan eta hori izan zan gogorrena, baina ez zion ezer ere in Bestela, ez zan akzidenterik egoten, herida txikixak beti.

-Handik, tarte baten ostean, Eibarrera joan zinen.

- 25 urtekin ezkondu in nintzan eta 9 urte-edo semiak hazten egon nintzan. Horren ondoren, Eibarren hasi nintzan lanian, gutxi gora-behera 1968 urtian. Eibarren oso gustora egon nintzan, laboratorio itxen. Haura neretzako oso lan politxa zan: odola atera, zaozen bi analisteri gauzak prestau... 7 urtian egon nintzan bertan.

-Azkenik, Elgoibarrera bueltatu zinen.

- Gero, nagusixak hasi zian esaten hemen bazauala toki xa, eta ia interesatzen jatan Elgoibarrera etortzia. Lehenengo oso gustora nauala esan niuen. Baina egune-

ro kotxiakin haruntz eta honuntz, norbera ere nagusitxu itxen da, eta aukeria euki nabanez hona etortzeko etorri in nintzan. Lehengo anbulatorixo zaharrian, ez dakit zenbat denboran egon nintzan. Gero, beste aldera jun ginan, gaur egungo anbulatorixora. Hemengo lana zatarrua zan. Hemen lan normala in naban, mediku batekin laguntzen egon, errezetak in eta holakuak. Neretzako, hemengo lana nahikua latza izan zan baina ohitxu in nintzan. Handik beste aldera jun ginan, eta oso ondo egon nintzan. Ez dakit zenbat urtian egon nintzan. Ez naiz gogoratzen noiz zabaldu zan, oin dala 12 urte-edo. Nahiko rezentia da hori. Oin dala urte eta erdi laga nion lanari.

Guztira 43 urtian egon naiz lanian.

-Lehengo anbulatorioa eta oraingoa ezagutu dituzu.

Bai anbulatorixo zaharrian eta oinguan egon nintzanian ere, gauza on bat euki gendun: herrixan dana danez ezaguna, segiduan itxen genduzen gauzak. Baten bati ondoezen bat eman edo hildakuak izan zianian, familixan moduan konpontzen ginan, ondoren, ez. Ondoren hasi zan oin dala bost urte edo jende berrixa etortzen, eta lan giro hotza zauan. Neretzako ez zan hoberako izan. Lehen, herrixa eta gu, danak familixa bat ginan.

-Zuretzat beti izan da garrantzitsua gaisoekin harremana edukitzea, ezta?

- Ni Bilbon oso ohitxuta nauan pertsonekin berba itxera. Zelan abadia ez zauan, neregana etortzen zian. Nola hospitala modukua zan, gaisuekin kontaktu haundixa eukitzera ohitxuta nauan. Politxena hori da: ospitalian, gaixuekin eurekin egotia. Gaizki ikusten ditzuzu, eta gero, aldiz, sendauta ikusten ditzuzu. Ondoren eskertzera etortzen dia. Hori da neretzako onena, anbulatorixoko lana baino politxaua, eta ni berriz ere jaixoko banintz, enfermeria izango nintzake, gaisuekin egoteko. Gaixuekin egotia neretzako gauza haundixa izan da. Oindiokan jendiak Gabonetan-eta akordua eukitzen dau eta hori oso politxa da.

ETA ¹¹¹¹ZUZ R DIOZU?

2.000. urtetik aurrera bizimodua asko aldatuko dela uste al duzu?

Laster 2.000. urtean sartuko gara eta hori dela-eta, edadetuei horri buruz galdera egitea aproposa iruditu zaigu. Esaten dutenez, 111. milurtekoan aurrerapen eta aldaketa garrantzitsuak etorriko dira, Gure herriko pertsona nagusien artean, ordea, ez du ematen horri buruzko kezka dagoenik; beraiek emandako erantzunen arabera, ez dirudi jubilatuek etorkizunari beldur handirik diotenik.




Maria Angeles Egaña

Ez nuke nahi nik. Ni gustora nao dakatena-kin, baina danen izenian ezin dot esan, denen gustua itxerik ez dao-eta. Adelantuak lehen ikusi genduzen eta ez dakitx berririk etorriko ete dan. Ez nuke ikusterik nahi egoeria oin baino okerrao. Etorri bihar dana hoberako izan deila eta ez txarrerako. Nik bildur hori dakat.



Carlos Gonzalez

Uste dut ez dela asko aldatuko, aldatzekotan pezeta utzi eta euroa hasten denean aldatuko da. Orduan bai aldatuko dela piska bat bizimodua. Hori guretzako seguraski kalterako izango da, European leku guztietan dirua berdina izango denez, hemen igarri egingo dugu. Dirua bateratzearen arazo hori edukiko dugu baina uste dut moldatuko garela.




Jose Mari Astigarraga

Nere iritzixan bizimodua ez da asko aldatuko. Nere ustian gauzek lehen bezela segitxuko dabe, ez dia kolpetik kanbixauko. Txarrerako ez dou bihar, izatez gero onerako izan deila etorriko dana. Datorrena ikusteko kuriosidadia badakat, ze ez dot sinisten munduan azkena etorriko danik.



Fel i Arrate

Esan asko itxen dabe baina ez da aldauko ezer ere. Bakarrik danok piskat espabilatzen jun biharko doula, biharra badakaueta. Badakiu munduan azkena ez datorrela. Ordenadoriak manejatzen ditxuenak, 2.000. urtia badatorrela konturatzen jungo diaz, datuak sartuko diuez eta ez dala ezer gertauko uste dot, holakoik ez. Ezer ez da pasauko inun bez.



Jose Beneitez

Nik uste dut adelantu batzuk ez direla gizarte klase guztietara heltzen, batzuentzat aurrerapenak dira eta beste batzuentzat atzerapena. Nik behintzat hala ikusten dut. Datorrena hoberako izan dadila, noski. Gauzak beti aurrerantz joan dira baina beharbada momentu baten topera helduko dira eta hortik aurrera, akaso beherantz egingo dute.



Gripea ez harrapatzeko aholkuak

Oraindik neguko sasoiari sartu ez bagara ere, eguraldia dagoeneko negu itxurakoa dugu eta tenperaturak hotzak dira. Garai hau gripearen garaia da, Virus hau, tenperatura hotzekin, batetik bestera ibiltzen da eta ez da zail!

Gripearri aurre egiteko modurik onena, aurre hartzea da. Horretarako bakunatzea da sistemarik onena eta baliagarriena. Elgoibarren urrian izan zuten hirugarren adineko pertsonen bakunatzeko epea eta dagoeneko bukatuta dago. Ha(a eta guztiz ere, bai bakuna hartu zutenentzat, eta baita hartu ez zuten edadetuentzat ere, badira aholku batzuk kontutan hartzekoak gripeak menpean ez hartzeko.

Ahal bada, tenperatura hotza egiten duen hilabete hauetan, pertsona asko dauden lekuak baztertzea komeni da. Gripea, arnasbideetatik kontajiatzen da eta ondorioz, norbaitek eztula edo domenistikua egiten duenean, ez da komeni harengandik gertu egotea. Gripea, huraxe sortzen duen virusa arnasten dugunean hasten da. Virusak, gaixo dagoen pertsonak hitz egitean edo eztula egitean kanporatzen du partikula mikroskopikoetan. Noski, hori dela-eta, gripearekin dauden pertsonekin harremana gutxitu edo murriztu behar da.

Nahiz eta bakuna hartuta egon, burukomina, sukar handia eta ondoeza giharretako minarekin batera sentitzen baduzu, gripea eduki dezakezu. Horregatik, lehen bailehen ohean sartu beharra dago eta medikuari deitu behar zaio. Sukarra jaisteko botikak hartzea eta likido ugari edatea komenigarria da.

Hirugarren edo laugarren eguna pasa ondoren, oraindik sukarra badago eta behin astebete pasa eta gero, eztulak segitzen badu, medikuari deitu behar diogu berriz ere.

Eskerrik asko Adoracion!



BARREN-eko lan taldekoak tarta hau prestatzeko Adoracion-ek daukan trebeziaren testigu izan gara. Izan ere, bere urtebetetzearen bezperan, bihotz oneko emakume honek berak egindako tarta ekarri zigun. Gustura jan genuen eta gure partetik eskerrak eta zorionak eman besterik ezin dugu egin.



Adoracion Garrido

Piñazko tarta (personarentzat)

OSAGAIAK: 4 arrautza, 7 azukre goilarakada, piña pote bat, 6 irin goilarakada, 2 Royal sobre.

PRESTAKETA

Piñazko tartaren prestaketa oso erraza da. Lau arrautzak hartu eta irabiatu egingo ditugu mantekilaz igurtzitako kutxara batekin (mantekila edozein izan daiteke: begetala, margarina... berdin dio). Ondo irabiatu ondoren, azukrea botako diogu eta jarraian piñaren zukua. Hori dena oso ondo irabiatuko dugu. Segidan, erabiliko dugun tartaren azukrea jarriko dugu gorritu dadin. Gorrituta dagoenean, ondo irabiatutako arrautzak, azukrea, piña zukua eta irina, bi Royal sobrerekin nahastuko dugu. Guztia ondo irabiatu eta gero, dena altuera txikiko tarterara botako dugu. Ontziak berezia izan behar du, *Iber* edo *Magefesa* bezalakoak, esate baterako. 20 minututan edukiko dugu tartera laban. Ondoren, handik atera eta buruz behera jarriko dugu. Azukrearen aldean piña botako dugu eta gero masa, piñaren gainera botako dugu. 20 minutuan eduki eta jarraian, behekoa, gorantz jarriko dugu. Lapikoa hustu egingo dugu eta dagoeneko eginda daukagu.

EZETIA

'et

ZE

OC

Ni

ct

Ger

n.

L.F.

tr

cr.

a.


1.1

de

ellelc7FTIP

FDDC7CTI

CDOC7C11)



Osasun

Wnean adituak

GAIA:

Ezpain leporinoa

ipuzkoan urtean 4 edo 5 ume jaio ohi dira ezpain leporinoa delako gaitzarekin. Sortzetiko maiformazioa da eta gehienetan haurrak horrekin batera ahosabaia pitzatuta jaiotzen dira. Kirurgia beharrezkoa da sendatzeko. Gaixotasuna gehienetan arazo genetikoek sortzen dute, baina ingurunearekin zerikusia duten hainbat problema ere izan daitezke gaitzaren eragile.

Ezpain leporinoa dUtenek, ezpainaren goiko aldea barrurantz sartuta izaten dute, honela ahoak untxien muturraren itxura hartzen du. Gaitza masailezurreko malformazioen artean ohizkoena da, munduan 600 haurretatik batek izaten du gutxi gorabehera gaixotasun hau.

Gaitzaren tratamendua anitza izatea komeni da. Hau da, sendatzeko prozesuan zirujanoez gain, ortodontistek, logopedek eta psikologoek ere parte hartu behar dute.

Arazoa konpontzeko bi ebakuntza dira beharrezkoak eta haurtzaroko gaixotasuna denez, adituek zalantzak izan ohi dituzte operazioa noiz eta nola egin erabakitze orduan. Zenbait adituren esanetan, ezpaineke ebakuntza haurrak 6 hilabete dituenean egin behar da, ahosabaiakoa, berriz, handik urtebetera.

Behin operazioa egin ostean haurrari normal hitz egiten erakutsi behar zaio ahal izanez gero eskolan hasi aurretik, ikaskideekin bazterketa arazorik izan ez dezan.

Gaur egungo aurrerapenak direla-eta, hainbat saiakera egin dituzte malformazioa fetuan detektatzeko, baina bitartean konponbide bakarra operazioa egitea da.

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Medikuniza naturala, F. de Bach, masaia, makrotoitika,

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **94 5 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

ficus (Optiko-optornetrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943,411193 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

bidia honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeke **943 74 41 12ra**



Asun
Iriondo 39 urteko elgoibartarra Burgosen bizi da. 22 urte zituenean. Burgosen pasa zituen udako opor-
rrak eta bizi-
modua guztiz

Askyt Jv'ioncio
Jruista

aldatu zitzaion, gero bere senarra izango zena ezagutu baitzuen. Ezagutu eta 2 urtera ezkondu ziren eta Asun Burgosera joan zen. Aipatu digunez lehen uneak nahiko gogorak izan ziren, "Burgosera jua eta berehala geratu nintzan haurdun. Hori dela-eta, herri eta ohitura berrietara moldatzea gehiarioa kostatu jatan eta nahiko bakarrik sentitu nintzan. Hala ere, gizonan familixiak asko lagundu zian eta laster integratu nintzan. Gainera, erroa denda bat ireki naban eta amastade haundixak in nixuan. Bestalde, Burgos oso hiri politxa da, nahiz eta elurra eta hotza eguneroko kontuak izan". Asunek Elgoibarko familia askotan bisitatzen duela esan digu, "sertidiak 'Sanson' baserrikuak dia eta askotan itxen dou berba telefonoz. Oso gustura bizi naiz Burgosen, baina amari esaten dioten moduan, hiltzen naitzenian nere errautsak Sanson baserri-
xan inguruetan botatzia gustauko jatan". Asunek badu zaletasun berezi bat: zezenketak eta toreroak izugarri gustatzen zaizkio. "Eskolara joaten nintzanian 'El Cordobes' ikusteko piper itxen naban. Gaur egun, berriz, Burgosera etortzen dian torero denei eskatzen diuet autografua".



R EXPTEti
bidai agentziak
babestutako atala

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 i 2

G O G O R A T U Z

Bartolome Osoro Elustondo

U897°1100®)



- 1897ko abuztuaren 24an, San Bartolome egunean, jaio zen San Frantzisko kalean. Bost anai-arreba izan ziren, bera gazteena. Mutikotako ikasketak publiketan egin zituen. Jolasean, esku pilotan, futbolean eta lasterka aritzen zen bere Madalako koadrilarekin.
- 13 urterekin hasi zen "Aleorta y Cia" lantegian lanean, eskopetak egiten. San Luis Gonzaga elkarte kidea ere izan zen. Urte batzuk beranduago, bazkide batzuk elkartu eta plantxak egiten aritu ziren. Gero berriz hasi zen "Alcorta y Cia" lantokian biltokiko buru gisa lanean.
- Sasoi honetan Bartolori Udaletxe azpian esku pilotan jokatzeko zaletasuna piztu zitzaion. Koadrilarekin Azkubeko futbol zelaira F.B.C. taldea animatza ere joaten zen. Baita orain desagertuta dagoen Kakatza sagardotegi ospetsura ere, boloetan jolastera.
- Ama alarguna zenez, soldaduzkatik libre geratu zen. 1924an ezkondu zen Manuela Gurrutzagarekin eta bi alaba izan zituzten, Maritxu eta Begoña. Honen suiak Antonio Astigarraga "Amesti" eta Pako Mugertza dira.
- Tenore izugarria zen eta Parrokiako koruan abesten zuen. Elizan konpromiso bereziak zeudenean lantokitik ateratzen zen mezatan abesteko. Bandan ere urte askoan aritu zen.
- Orain dela urte asko gaixo kutsakorrek hiltzen zirenak ez zituzten elizan sartzen beldurra zela-eta, zuzenean hilobiratzen zituzten. Bartolok bolondres moduan sarritan eraman izan zituen hildakoak eta baita lur eman ere.
- "Bar Txerrn, gaur egun "Oraiko" dagoen lekuan, lagun artean takilu egitea gustuko zuen.
- Gizon ona, herrian maitatua eta errespetatua, familia girokoa eta sinestuna zen. Abestiak, esku pilota, irakurketa eta paseatzea zituen gogoko.
- Gizon zintzo hau 1968ko apirilaren 28an hil zen, 71 urte zituela.

Juanito Gorostiza

KAROBIGOUICURIA IDAN'

BERNA

Enpanadak i

Enbutidoak

Baserriko oga

Boiteria


San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 u 943 74 3392,



San Frantzisko, 37
Tel. 943 74 06 37



KOMUNITATEAK eta FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



Argazki hau Jose Antonio Morenok utzitakoa da eta Pilar ikastetxean daszo aterata 1957. urtean. Argazkian agertzen diren mutikoak futbol txapelketan beraien mailako irabazleak izan ziren. Iribartsu eta garaikurrak eskutan dituztela ikus ditzakegu mutikoak. Garai hartan gaztetxo zirenak aldatu dira eta baita ikastetxearen inguruak ere, ikusi besterik ez dago gaur egun haurrek nolako jolastokiak dituzten.

Hona hemen argazkian agertzen direnen izen abizenak. Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Jesus Mari Barrenetxea (Borragen), Jose Antonio Moreno (Rubito). Juanito Esnaola (Muxillo) eta Alberto Epelde(t). Azpiko ilaran: Miguel Angel Riaño, Juan Cruz Sol (futbolari internazionala izandakoa), Jose Antonio Juaristi eta Jose Antonio Lasuen.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



URKIDI

AHOLKULARITZA

1TT ERCOS ASEGUROAK


Kalamua, 12
ELGO1BAR
Tel-Faxa:
943 74 18 91



Olaso, 23 · Tel. 943 74 20 37



"Bizhazfi korritu dudan lehen lasterketa luma izan da Behobia-Donostia"



Oscar Malvar

- Adina: 22 urte
- Gogoko kirol edo zaletasunik? Txirrindularitza, areto futbola eta saltaka egitea.
- Gustuko klolaririk? Marco Pantani txirrindularia.
- Taldean egiten diren kirolak ala bakarka egiten direnak? Bi eratakoak ditut gustuko.

-Behobia-Donostia lasterketan parte hartu duzun lehen aldia izan da aurtengoa. Zer moduz? - Bai, lehen aldia izan zen eta oso gustura ibili nintzen. Hala ere, esperientzia falta zela-eta akats batzuk egin nituen. Ez nekien saltakariak ordua baino ordubete lehenago egoten zirenik irteeran prest, eta oso atzeratuta hasi nintzen. Irteera puntura ailegatzan bakarrik 2 minutu galdu nituen jende pilaketen ondorioz, eta lehen 2 kilometroetan 4 minutu gutxi gorabehera.

-Hala ere, marka bikaina egin zuen, ezta? - Bai, 1:16:46 izan zen nire denbora. Marka oso ona da, baina hobetu nezakeen irudipenarekin amaitu nuen. Aipatu ditudan arazo horiek izan ez banitu, ordubete eta 12 minuturen bueltan ibiliko nintzela uste dut. Izan ere, azken 10 km.ak egiteko behar izan nuen denbora hasierakoak egiteko erabilitakoa baino gutxiago izan zen.

-Marka konkretu bat egiteko asmoarekin joan al zinen? - Ez, parte hartzen nuen lehen aldia zen eta ez nuen ibilbidea ezagutzen. Erreferentziak falta zitzaizkidan eta nahiko lasai hasi nintzen korrika. Hala ere, nire burua oso ondo ikusten nuen entrenamenduetan eta banekeen marka on bat egiteko gai nintzela.

-Antzerako beste lasterketaren batean parte hartu al duzu inoiz? - Ez, bizitzan korritu dudan lehenengoa izan da. Hala ere, kirola egitea izugarri gustatzen

zait eta aspalditik nuen Behobian saltaka egiteko gogoia.

-Zein eratako entrenamenduak egiten dituzu? - Areta futboleant jokatzen dut eta bertako entrenamenduak izan dira nire prestaketaren oinarria. Bestalde, zenbat eta gehiago saltaka ibili berriz ere joateko gogo gehiago izaten dut. Dietari dagokionez, amak plateran jartzen didanaz aparte ez dut inolako dieta berezink jarraitu.

-Zer iruditu zitzaizun lasterketako giroa? - Korrikalarien artean giro aparta dago eta ikusleen animoak ere sinesteziak dint. Miracruz igotzen ari nintzela hirugarren amaitu zuen ernakumea nire atzetik joan zen, eta jendeak nola animarzen zuen ikustea izugarria izan zen. Bestalde, dauden aldapen goikoakletik begiratu eta aurretik jendea besterik ez ikustea ikusgarria da. 11.000 pertsona korrika ikustea zoramena da.

-Berriz itzultzeko asmorik? - Bai, dudarik gabe. Aurtengo markati esker aurreragotik aterako naiz gainera. Beste proba batzuetan parte hartzeko gogoia piztu zait, eta datorren urtean maratonia egitea gustatuko litzaidake.

-Kirolariak jaio ala egin egiten direla uste duzu? - Ezaugarri berezi batzuen jabe jaiotzea ezinbestekoa da. Gero, ezaugarri horiek landu eta aprobetxatzen jakin behar da. Hala ere, zerbait lortzeko izugarritzko gogoia izateak asko laguntzen du.

Aitor Garitagoitia ehlztariak irabazi du Cipuzkoako Oilagor Txapelketa

Aitor Garitagoitia ehlztari elgoibartarra da Gipuzkoako Oilagor txapelketa berria. Azken aldian fin dabilta ehlztari elgoibartarrak, eta Dani Arenasek Ehiza Xeheko Txapelketa irabazi ostean,



Aitor Garitagoitia

Aitorrek ere bere mailaren berri eman zuen pasa den zapatuan, hilaren 20an, jokatu zen proban. Txapelketa, Gipuzkoako 3 zonaldetan banatuta jokatu zen: Elgoibarren, Oiartzunen eta Billa-

bonan. Guztira 19 ehlztari hartu zuten parte eta 7 oilagor bota zituzten denen artean. Aitorrek oilagor bat ehlizatzea lortu zuen goizeko 8:04ean, eta 12:30ak baino lehen eraman zuen kontrol postura. Erakutsi zuen azkartasun eta punteria

onak einan zion txapela eta orain Araban jokatuko den Euskadiko Oilagor Txapelketan parte hartzeko irrikitan dagoela azaldu digu. Euskadiko Txapelketa abenduaren 11n izango da.

ESK@LARTEW KERALAK 1

ABETO FUTBOLA (Mintxetan)

■ Benjamin mutilak

10:30 Herri Eskola B- Mendaro B

12:00 Herri Eskola A- Pilar A

12:30 Ikastola A- Ikastola B

III Benjamin neskek 111

10:00 Pilar A- Ikastola D

11:00 Mendaro A- Ikastola A

11:30 Pilar B- Ikastola B

SASKIBALOA Ilkastolan)

• Alebin mutilak ■

9:00 Herri Eskola B- Herri Eskola A

9:45 Ikastola C - Ikastola A

10:30 Mendaro A- Ikastola B

11:15 Ikastola D- Pilar B

■ Alebin neskek •

12:00 Pilar A Ikastola A

12:45 Ikastola C Pilar B

ESKUBALOA Kroldegian)

■ Intantil mutilak ■

11:15 Pilar A - Fleje

12:00 Arno - Ikastola A

■ neskek ■

9:00 Ikastola A Pilar B

9:45 Ikastola C - Ikastola B

10:30 Pilar A- Hamaikak Neskek

dose Fernandez, elurretan ere nagusi Karakatera VI. igoeran

Partehartzaileen arerio nagusia elurra eta lur labainkorra izan ziren



Jose Mari Fernandez elgoibartarrak Karakateko aldapa gogorrean neurrria hartuta diela erakutsi zuen pasaden zapatuan, hilaren 20an, jokatu zen Karakaterako VI. igoeran. 14 korrikalarik hartu zuten parte *Urgazi Triatloi taldeak Morkaiko M.E.*-ren laguntzaz antolatzen duen proban, baina Iñaki Kondek ezin izan zuen proba bukatu min hartu baitzuen hankan. Iaz, saltakarien etsai nagusia euria eta lainoa izan baziren, korrikalariak laino eta elur artetik agertzen ikustea ikusgarria izan da aurtengo igoeran, batez ere, tontorrean bildu ziren ikusleentzat. Egin zuen eguraldia kontutan hartuz, •Suso'k marka bikaina egin zuen (32'30"). Gogoan izan behar dugu igoeraren marka onena ere, Fernandezen esku dagoela duela 3 urte egindako denborari esker (29'43"). Bigarren sailkatua Martin Dominguez izan zen, eta hirugarrena Unai Bengoa eibartarra.

noa izan baziren, korrikalariak laino eta elur artetik agertzen ikustea ikusgarria izan da aurtengo igoeran, batez ere, tontorrean bildu ziren ikusleentzat. Egin zuen eguraldia kontutan hartuz, •Suso'k marka bikaina egin zuen (32'30"). Gogoan izan behar dugu igoeraren marka onena ere, Fernandezen esku dagoela duela 3 urte egindako denborari esker (29'43"). Bigarren sailkatua Martin Dominguez izan zen, eta hirugarrena Unai Bengoa eibartarra.

Sailkapena

Wtwi,ouAKE

- 1- Jose Mari Fernandez 32'30"
- 2- Martin Dominguez 34'50"
- 3- Unai Bengoa 35'10"
- 4- Iftigo Etxaniz 37'26"
- 5- Jose Antonio Agote 37'47"
- 6- Jose Javier Urain 37'58"
- 7- Xabier San Martin 38'44"
- 8- Asier Arrieta 38'44"
- 9- Juan Fernandez 40'14"
- 10- Javier Torquemada 40'46"
- 11- Ignacio Perez 41'20"
- EMAKUMEAK •
- 12- Pilar Arriola 44'13"
- BETERANOAK •
- 13- Antonio Fernandez 46'40"



Eskerreko argakian, Jose Mari Fernandez Karakatera ailegatu berri. Goiko argazkian partehartzaile batzuk ageri dira.

• Aitor Arrillagak Irungo Hiria < Krosa irabazi du alehin mailan

Pasa den domekan, hilaren 21ean, hasi zen kros F— denboraldi berria. Lehen proba Irungo Hiria XX-XI. Krosa izan zen, eta Txingudi Ikastolaren inguruetan jokatu zen. Mintxeta Atkismo Taldeko korrikalariak bertan parte hartu zuten, eta baita emaitza onak lortu ere. Aitor Arrillagak esaterako, bin mailako lasterketa irabazi zuen. Infantiletako nesken mailan, berriz, Nerea Zubiaurrek zilarrezko domina eskuratu zuen. Lara Urainek eta Dorleta Aranberrik lehen 10 postuetan sailkatzea lortu zuen bakoitzak bere mailan. Bestalde, Ana Etxaniz korrikalari elgoibartarrak ere bigarren postuan amaitu zuen kadete mailan. 2.000 m.ko lasterketa ketan parte hartu zuen eta kadete mailan saltakak egiten zuen lehen aldia zela kontutan hartuz, bikain aritu zen.

• Gimnasia terapeutiko ikastaroa uretan

Elgoibarko Udal kirol Patronatuak gimnasia terapeutikoa uretan egiteko ikastaroa antolatzen du. Ikastaroak abenduaren lehen hasiko dira eta astelehen eta asteazkenetan izango dira. Orduetegiari dagokionez, klaseak goizeko 11:30etik 12:30era izango dira. Patronatuko bazkideek 1.000 pta. ordaindu beharko ditozte eta bazkide ez direnek, berriz, 2.800 pta. Interesatuak Olaizaga Kiroldegian eman dezakete izena (Tel.: 943 74 44 15).

EMAITZAK

Futbola

Lemona 2- Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 4- Eibartarrak 1 (2. kad.)
Elgoibar 2- Tolosaldea 2 (1. erreg.)
Elgoibar 2- Aloña-Mendi 2 (0. inf.)
Elgoibar 9 - Bergara 1 (Neskak)
Allerru 4- Pedrusko 4 (1. erreg.)

Eskubaloia

Tecnomeca Elg. 22 - Ilrola 17 (Kad. mul.)
Pneumax Elg. 25- Almen 21 (Jub. mut.)
Aloña Mendi 11 - Pagoaga Elg. 21 (Kad. nes.)
Almen 23 - Gaur Elg. 36 (Kad. mut.)
Aloña Mendi 14 - Unceta Elg. 19 (Juh. nes.)
Urietata K.E. 21 - I.M.S. Elg. 17 (Senior nes.)
Donibane 20 - I.M.H. 25 (Senior mut.)

Pilota

Gipuzkoako Txapelketa
Lagunak 10 - [Iunpe 22 (Jub.)
Lagunak 10 - San Esteban 22 (Nag.)
San Esteban 22 - Lagunak 7 (Kad.)

Xakea

Mutriku 2- Elgoibar 2 (1. maila)
Elgoibar 1'5 - Deba 2'5 (2. maila)

Areto futbola

Cabo Rojo 4 - Zur Ta Lur 2 (Autonom.)
Guria 4- Zur Ta Lur 2 (1. maila)
Pub Elxenagusia 13 - Euskadi Racing 1
Los Herminios 5 - trion 4
Anorthosis 4- Real Mehy's 13
Horacio 7 - Hermis 5
Bayern de Munitxibar 0 - The Ravel's 1
Deportes Justo 5- Bar las Torres 6
Barrenkale 5- Elur Malutak 8
Kashima Brewers 8- Haritza 6

idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 99/00	JOKALARIA	PUNTUAK
1- Aranberri	26
2- Castro	25
3- Zulaika	22
4- Polo	„ .. „	21
5- Alberdi	11
6- G. Leonardo	10
7- Bravo	9
8- Castillo	8
9- Diaz	7
10- tbaduzea	6
11- Txasio	4
12- Caro	4
13- Manolo Ramos	4
14- Guarrotxena	4
15- Alcorta	3
15- Baqued	3
17- Fernandez	2
18- Laren	2

GENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 27
15:30 San Ignacio - Elgoibar (Juh. E.L.)
Igandea, 28
17:00 San Pedro - Haundi (3. maila)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 27
15:00 Tecnomeca Elg. - Urrietako K.E.
Ostirala, 3
21:60 I.M.H Elg. - Donibane

ortnna dutlalgurg || ||E11116/ ||1113g1E IE[.d||

Bi diskotan eta "Yoyes" filmearen soinu bandan hartu dute parte

Ricardo Gorriti, Bittor Zubiaurre eta Txomin Mujika, Elgoibarko dultzaineroak, bata bestearen atzetik proiektu ezberdinetan parte hartzen ari dira. Iaz, Estatuko lurralde ezberdinetako musikak biltzen dituen disko baten parte hartu zuten. Ondoren, Elena Tabernak zuzendutako "Yoyes" pelikularen soinu bandan dultzaina doinuak grabatu zituzten. Eta orain, Julian Romano dultzainaren omenezko diskoan beste abesti bat grabatu berri dute.



Lehenengo proiektua iaz jani zen martxan. Elgoibarko dultzaineroen Gorka Errejilek tanborra jotzen du eta Garikoitz Mendizabalek, Euskadiko Txistu txapeldunak, dultzaina. Horrela, Gaiikoitzi Oviédoko Bandatik deitu zioten Iberiar Penintsulako lurraldeetako musikak diska batean jaso behar zituztela esanez eta ea berak txistua joko ote zuen eskatuz. Garikoitzek dultzaina ere hor zegoela esan zuen eta Txomin Mujikarekin hitz egin zuen. Hori zela-eta, Oviédora joan ziren Garikoitz bera, Gorka Errejil eta Txomin Mujika. Hauek txistu eta bandarako pieza bi eta dultzaina eta bandarako beste pieza bat ere grabatu zituzten abenduan, bi egunetan. RTVEren zigilupean kaleratu zen diskoa eta honen aurkezpena aurtengo apirillean izan zen, Teatro Campoamorren.

Han elgoibartarrek berriz jo behar izan zuten Oviédoko Bandarekin. "Diskoa oso polita da, oso alaia eta lurralde ezberdinetako musikak jasotzen ditu: Kataluniakoak, Galiziakoak, Euskadikoak, Aragoikoak..." esan digu Txomin Mujikak.

"Yoyes" pelikularen soinu banda

Horren ostean, urriaren hasieran zineko produktora hatetik deitu zioten Txomin Mujikari, "Yoyes" pelikula filmatu zutela eta musika egileak, Angel Illarramendik, soinu bandaren momentu baten dultzaina ere sartu nahi zuela esanez. Mujika musikagile zarauztarrarekin harremanetan jarri zen eta hark esan zion Oviédoko diskoa entzun zuela. Ondoren, Elgoibarko dultzainc-

roei filmearen soinu bandarako jotzea proposatu zien. Partiturak ikasi ondoren, urriaren 24an, Nafarmako Azkarate henian Katarain estudioetan grabatu zuten. Soinu bandaren grabaketa guztia ordura arte Pragagan egin zen, Pragako Orkestra Filarmonikoarekin. Baina Illarramendiren ideia Orkestra honekin dultzaina nahastea zen. "Oso gustura gelditu ginan in genduanakin eta oso interesgarria iruditu jakun, baina ikusi bihar pelikulan zelan gelditzen dan" adierazi digu Txominek. Filmearen errodojea bukatuta dago eta datorren urteko urtarrean estreinatuko da dirudienez. Badirudi dultzaina soinua filmearen bukaera alde-entzungo dela, Pragako Filanionikarekin eta txalapartarekin batera.



Argazkian Julian Romano ren omenezko diskoan a bestia grabatu duten musikoak ageri dira

Rornanoren omenezko diskoa

Azkenik, azken lan garrantzitsua duela gutxi egin dute dultzainero elgoibartarrek. Aurten 100 urte betetzen dira Julian Romano hil zela. Julian Romano Lizarrakoa, dultzaina munduan izan den konpositore eta interpretatzaile handiena da, Elgoibarko Bandak Irukako dultzaineroekin diskoa grabatu zuenean, disko horretako obra nagusia Romanok egindako obra bat zen. Urteurren hori dela-eta disko berezi bat kaleratuko da eta disko horretan dultzaina izango da nagusi. Hortaz, Elgoibarko dultzaineroek Elgoibarko Bandako musiko batzuekin orkestra txiki baten antzekoa egin dute, 11 lagunekoa guztira. Aste honetan bertan, azaroaren 23an, euren abestia grabatu dute diskorako. Diskoak urte hasiera aldera ikusiko du argia.

Ikaslea naiz eta harro nago?

Azaroaren 17a Ikasleen Nazioarteko Eguna izan zen. Ikasleek, leku eta garai guztietan unibertsalak diren arazo eta buruhaustek izaten dituzte: azterketak, urduritasunak, txuletak, irakasle ipurterreak... Hala ere, garai bakoitzeko ikasleak momentu horretako gizartearen ispiluak izaten dira. Beraz, egungo ikasleen bizimoduaz gehiago jakin nahian, 2 ikasleri honako galdera hauek egin dizkiegu.

Riora Fernandez,

17 urte

- 1- GUSTURA AL ZAUDE IKASLE BIZIMODUAREKIN?
- 2-EGIA AL DA IKASLEAK LANEAN NOIZ HASIKO DESEATZEN EGOTEN ZARETELA?
- 3- IKASLEON ARTEAN SEKULAKO KONPETENTZIA (NOTENGATIK BATEZ ERE) DAGOELA ENTZUTEN DA.
- 4-BA AL DAKIZUE ZER DEN PARISEKO 68ko MAIATZA?
- 5- IKASLE MUGIMENDUREN BATEAN PARTE HARTU EDO EZAGUTZEN AL DUZUE?

(2. zila) Oze
gu 110.0

os.0 gu durzi.
Bizimodurik onena ikas-
liena dala esaten dabe
askok eta ni ere ados
nao. Bestaide. oindo-
kan ez dot ...

rik ein. baina exatilll garaixak
tzeko motibo haundirik.

2- Bai, lanian hasteko gogo
handixa dakat eta zenbat eta le-
henao izan hobea. Batez ere, di-
rua irabazten hasteko nahi tiot
lanian hastia, diruak independ-
dentzia ematen baitu. Guraso-
en menpe ez bizitzeko eta nor-
beraren bizimodua planitika-
tzen hasteko lana eta soldatia
enkitzia hila7kua da.

kenduta ez dakagu keja-



me ikasle bizimodua one-
na dala esaten dabenekin.
Oso urdurixa naiz eta asko kos-
tatzen jata ikasketak aurrera ateratzia. Lana nolakua dan pro-
bauta dakat, eta neretzako egokixaua dala iruditzen jata, hobe-
to moldatzen naiz.



2- Bai, taberna batian egon
nintzan lanian, eta oso gogorra
izan arren, esperientzia aberasga-
rria izan zan. Ez daka ikasle bizi-
moduakin zerikusirik, beste mun-
du bat da. Bestalde, lanian hastiak
abantaila batzuk ere baditxu. Ba-
tetik, independentzia lortzen da
soldatari esker, eta bestetik, ikaslia
zeranian duda asko izaten dia, zer
ual;...10 ote etorki/unian. /Cr
112.0 det... 111111111 hasteralwan,
rriz, gauzak argixao ikusten dila
uste dot.

Bui. direla-cia
art,:ko kiliTeteui/ia Notlt onak dteraueli
e/ Jird konformatzen eta oniindik hok.:
aie:airea nalii itmend..Lbe. IbTrek ;,ortem dau konr,,q,quitia.

(11a.
th 111, 11j.1j1 i n
antol.w. Ci,1 11.111
at 114

KAFETEGIA
943 74 42 65

Cordon, Vilar... b
DEKORAZIC)A
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOIA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTUIAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke, 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461M
 Txandlartzeko . 943 743354
 Plannidra' . 943 742950
 Alkoholiko Anommoak 943740385
 O.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria .. 943 743864
 Mendareko Ospitaia . 943 032800
 Odol Emaileak 943,743936

GAFIRAIOR

Eusko Trenbideak .. 943 740442
 PESA (E711) 210 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . 943 744415
 Kultura Zerbitzua.. 92742158
 Mendaroko Udala .. 943,756100
 Ongizate zerbitzua ... 9T3741 008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa. 943 741394...

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .. 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola .. 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

AOINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza. . 943 740296
 Zaharren ... 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola .. 943 74 21 4,
 HHI (EPA) . 943 74 08 80
 Herri Eskola .. 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 'Herri Institutuda
 Arreiturre . 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) .a 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastelxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREI..... 943 74 41 12
 El Tharnasco 943 74 40 73
 El Correo Español. . 943 74 10 82
 Zazpiki irratia 943 74 34 74

**28
igandea**

**11:30 EUKARISTIA eta
ELKARRIZKETA**

Gaia:
 Merezki al du apaiz izateak
 gaur egun?
 San Bartolome Parrokian

**16:30
TXOTXONGILOAK**

"i,Donde esta mi heroe?"
 Taldea: Sobrevento
Brasileko konpainia
 Herriko Antzokian

**19:00 ZINEA
GAZTETXEAN**

"Some mother's son"
 (edozein amaren semea)

19:30-22:15 ZINEA

"Novia a la fuga"

**2
asteleena**

**14:00 TXANKAKUAren
IKASTAROA**

Gaia: Promozio
 komertzialaren antolaketa
 Kultur Etxean

**19:30 ITXAROPENA
ABESBATZA**

Jubilatu Etxean

22:15 ZINEA

"Novia a la fuga"

**1
asteazkena**

17:30 TXOKOLATADA
 Jubilatu Etxean

**2
osteguna**

**19:00 GABONETAKO
OTARREN ZOZKETA**
 Jubilatu Etxean

**3
ostirala**

**15:00 BAZKARI
BEREZIA**

Jubilatu Etxean

**Ondoren
DUO PLAENTXI**

**19:00 LUZIANO eta
MIGUEL RUIZ-
POVEDAren MARGO
ERAKUSKETA**

Kultur Etxean
 (Abenduaren 19ra arte)

19:30 ZINE FORUMA

"Frida y Camila"
 Hizlaria: Eskarne Larrinaga
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Haizea E.T.

19:00 ZINEA

"American pie"

**28
ostirala**

**19:30 EUSKAL
PRESOEN
ESKUBIDEEN ALDE
MANIFESTAZIO ISILA**

Antolatzailea:
 Batera plataforma

21:30 ZINE FORUMA

"Moll Flanders"
 Hizlaria: Eskarne Larrinaga
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 HAIZEA E.T.

**27
larunbata**

19:30-22:15 ZINEA

"Novia a la fuga"

• • • • • al 1111 • III • ■ R • • • • • 11

**ril
NE**



Novia a la fuga
 Ike Grahamek (Richard Gere) New York-eko egunkari batean egiten du lan. Oso lanpetuta dago, eta ordubeteko epea bakarrik du artikulatu bat bukatu eta nagusiari emateko, bere emazte ohiari, alegia. Gauzak horrela, herritxo batean bizi den neska baten berri izango du, eta behar duen albistea dela irudituko zaio. Neskak Maggie (Julia Roberts) du izena eta ezkondu aurretik senar-gaia behin baino gehiagotan utzi duelako da ezaguna. Arazoak ondoren etorriko dira.

Zuzendaria: Garry Marshall.
Antzezleak: Julia Roberts,
Richard Gere, Joan Cusack.

• • 1111 • 111111 • ■ El • • • • •

PRESOen OMENEZKO EKITALDIAK

OSTIRALA 26

**22:00 Presoen Senideei
omenaldia**

**22:30 Benito Lertxundiren
kantaldia**

LARUNBATA 27

13:00 Kontzentrazioa

Tokia: Plaza Handiart
Antolatzailea: Amnistiaren
Aldeko Batzordea

**15:00 Irratsaio berezia Zazpiki
irratian**

"Hamabost urte bahituak"

19:00 Kazerolada

Ineera Gaztetxean
Zarata sortzeko edozein tresna
eraman.

20:00 kontzertua

`12 tribu' reggae taldea
Gaztetxean

00:00 kontzertua

`Ttak' ska taldea
Gaztetxean

Ondoren

`Filobiblion sound systema'
Gaztetxean

IGANDEA 28

19:00 Zinea

"Some Mother's son"
filme irlandarra
Gaztetxean



• Jubilatuen astea

Datorren azaroaren 29tik aurrera jubilatuen astea izango da. Astelehenean, azaroaren 29an Itxaropena abesbatzak abestuko du arratsaldeko 7:30ean. Abenduaren lean, asteazkenean, txokolate jana egongo da arratsaldeko 5:30etik aurrera Biharamonean, Gabonetako 40 otar zozketatuko dituzte. Ostiralean, abenduaren 3an, eguerdiko 14:00etan bazkari berezia egingo dute jubilatuek. 80 urtetik gorakoei, hauen ezkontideei eta urrezko ezteiak betetzen dituztenei omenaldia egingo zaie eta bertan PIAentxi bikoteak abestuko du. Bazkaria joateko izena emannahi duten 80 urtetik gorakoei Jubilatuen Etxeko bazkide txartela eta N.A.N. edo karneta erakutsi beharko dituzte eta urrezko ezteiak betetzen dituztenek, berriz, bazkide txartela eta familia liburua.

• Eukaristia eta elkarrizketa

Igandean, azaroaren 28an, eukaristia eta elkarrizketa izango da San Bartalome Elizan goizeko 11:30ean. "Merezi al du apaiz izateak gaur egun?" gaia landuko da eta Donostiako Seminarioko apaizgaiek hitzegino dute.

T X A N D A K

FARMAZIAK

Egunez Gaez

27 Bidasolo Bidasolo

28 Bidasolo Bidasolo

29 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

30 Fernandez Fernandez

1 Yudego Yudego

2 Zabaleta Zabaleta

3 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

ESGALA: Rekalde, 1
Sorafuze. Tel: 943 75 16 38

J. IGNACIO FERNANDEZ
Herriko enparaniza 4,
Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
28 igandea Idarraga

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Iciar Bollain.
Antzezleak: Jose Sancho,
Lisette Mejia, Luis Tosar.

Flores de otro mundo

Santa Eulalia herriko gizon ezkongabeek etorkizuna ilun ikusten dute emakume falta dela-eta. Beraien patua aldatzeko asmoz, ezkongabeentzako jai bat antolatuko dute eta emakumez beteriko autobus bat heffira ekarri. Autobusean era askotako emakumeak datoz. Herriko gizonen eta emakume hauen arteko desberdintasunak direla-eta, asko kostako zaie elkar ulertzea.

• EI R ■ III - III al • III ■ 111 -

OHARRA:

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

Lana

• ESKAINTZA •

- Elgoibarko enpresa batek informatika teknikaria behar du. is 943 74 08 50. Faxa: 943 74 29 16
- 25 eta 35 urte bitarteko janari banatzailea behar da. Gidatzeko karneta izatea beharrezkoa da. tr 943 74 46 63 (21:00-22:00 deitu)
- Emakume edadetua zaintzeko pertsona behar da. a 943 74 03 70
- ♦ Tabernarako neska behar da larunbatetan lan egiteko. Tr. 943 74 37 71

♦ ESKAERA •

- Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. ir 943 74 29 73 (Andone. Goizez deitu)
- ♦ Erizain laguntzaile dip3omatua eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. r 609 77 01 33 (Asis)
- ♦ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo eta edadetua zaintzeko. Etxean edoeta ospitalean. Gauzez nahiz egunez. l3 943 74 27 78 (Itziar)
- Neska gaztea eskaintzen da ermpa dendan edo lurrindegian lan egiteko. Esperientziarekin. is 696 67 78 80 (Estibaliz)
- Etxeko lanak eta garbiketarako egiteko emakumea eskaintzen da. is 609 52 68 69

Etxebizitzak

- Pisua behar dugu alokairuan. Txikia eta ahal izanez gero altzariarekin. tr 943 74 30 67 (13:30 etik 15:30(lera bitartean)
- Orain arte ilepaindegia egon den lokala alokatzen da. re 943 75 50 73
- Pisu txikia alokatuko nuke. 11. 943 74 04 86
- ♦ Lokala saltzen da Donosti kalea, 10 zenbakian, Altzolana. 75m2 ditu. s- 943 74 39 91
- Pisua saltzen dut Santa Ana kalean, gutzit berritua.
- 943 74 05 14/626 23 75 70

Garaleak

- Marraciun garajea saltzen da pista behean. zr 943 74 00 89 (astegunetan eta 21:00etatik auntra deitu)
- Garaje itxia hartuko nuke alokairuan Arregitorren. ar 943 74 15 16

Bestelakoak

- Urrezko pultsera galdu dut. Flakan Edurne izena dauka idatzita. ✓ 943 74 08 61
- Caritasek etxe txikirako altzari txikiak behar ditu. is 943 74 15 09
- 2 eraztun galdu ditut: batek brillante hat dauka eta besteak E iniziala. Santa Klaratik King-Kongearako bidean. ir 943 74 13 97
- Etxean ingelesa ika.ai nahi balazu deitu 943 74 36 89 telefonora, informatuko zaitugu.
- Forro polar urdina galdu nuen hilaren 15ean Mintxetan. Taila txikia da. a 943 74 19 57 (Antton)
- Kortina, kuxin, apal, maindire, oihaal etab. oso gustura hartuko genituzke. v 943 74 35 72 Gazte Asanblada
- Salsa, Merengue eta Cha Cha Cha ikastaroa larunbatetan Arlen, dantza irakasle kubatarrekin. Interesatuak deitu 630 830 222 telefonora.
- Marshall aplikagailu bat (100W-koa), Ibañez SG/540 kitarra eta oraindik estreinatua gabeko ahots mahai bat saltzen ditut. • 943 74 40 87

- Mintxetatik kiroldegirako bide tartean Errealeko txandalaren oca-keta galdu nuen duela pare hat aste (10 taila). e 943 74 37 94
- Cocker Spaniel beltza oparitzen dut ezin dudalako zaindu. 9 urte ditu, oso lasaia da, maitagarria eta oso ondo hezitua dago. ir 943 74 42 55
- Zilarrezko pultsera bat aurkitu nuen duela 2 hilabete. Naikari eta 98-10-30 dauka idatzita. tr 943 74 31 41 (gauzez deitu)
- Urrezko eraztuna (zigilua) galdu dut Santa Ana kale inguruan. tr 943 74 13 21
- In leike' Meudaroko aisialdi taldeak hurrengo altzariak hartuko lituzke: buzoia, arinMrua, pertxeroa, paragueroa, apalak... Gu pasatuko ginatete materiala ja.sotzera. Idoia tr 943 75 61 21

Salerosketak

- W. polo GTI SS-AJ autoa salgai. 106.000 Ktn. a 943 74 15 19 (Eguerdian deitu)
- Opel Kadett GSI salgai ze 606 43 80 67
- Silver Cross kapotadun kotxea eta silla salgai. Egoent onen. Osgardak oparitzen dira. tr 943 74 37 82 (19:00 etatik aurrera deitu)
- Seat Marbella SS-AV salgai. 25.000 Km. Egoera onean. v 943 74 29 69
- Honda Civic 1,5i salgai. Oso egoera onean. tr 656 72 36 76
- Opel Corsa 1.2 SS-V matrikulako autoa saltzen da. Oso egoera onean. r 943 74 24 06 (gauzez)
- 5 urteko neskatorentzat baserri-tar soinekoa emsiko nuke. 71 943 74 29 27

Partikularrak

- Dibujo Teknikoko klaseak ematen dira. 943 74 43 98
- Dibujo Teknikoko klaseak emateko pertsona behar da. e 943 74 07 47 (Nerea)
- Unibertsitari talde bat Mendaroko ikastolako haurrei eta ESoko ikasleei laguntza klaseak emateko prest dago. Prezio merkeak, talde murrizak eta arreta berezia. tr 943 75 61 70 (Alaitz) wr 943 75 61 90 (Ziortza)

Agurrak

- Zorionak Borja Fernandezi, asteartean, hilaren 23an, 8 urte bete zituelako. Salegiko taldearen partez.
- Zorionak Eneko Etxaniz, hilaren 21ean, urteak bete zituelako. Ikastolako 3. mailako eta bereziki Iosu C. eta Danel M.ren partez.
- Zorionak Susanari, Jesus Mariri eta Arnalari 30entzero etorri baino lehen opari eder pare hort ekartzeagatik.
- Zorionak ailtitxa Angel Mariti, bihar urteak beteko zituelako, Ikerren partez. Ia Hurrengorako kotxe handiago bat erregalatzeko didazun.
- Zorionak Palxi Alvarez, bihar, hilak 27, urteak beteko zituelako. Telefonoz ez deitu arren, zure egunarekin akordatu gara. Antxon eta Pepiren partez.



• Zorionak Miren Artzuagari, gaur, hilak 26, 6 urte bete dituelako. Gurasoen, ahizpa Iratiren partez.



♦ Zorionak Borja Fernandezi, asteartean, hilak 23, 8 urte bete zituelako. 8 tirakada belarrietatik eta ondo pasatu, gurasoen eta ahizpa Nerearen partez.



• Zorionak Lorea Arenasi bere urtebetetzean. Familiaren eta bereziki bere anaia Daniren partez.




• Zorionak Daniri, gaur urteak bete dituelako. 27an Euskadiko Ehiza Txapelketan zorte ona izan dezazula!



• Zorionak Rakei Babarri, asteazkenean 9 urte bete zituelako. Familiaren partez.




• Zorionak Urtziri, astelehenean, hilak 29, 5 urte beteko dituelako. BeLarritik tirakada handi bat eta muxu bat, bere osaba-izeben eta lehengusina Sarairen eta Rocioren partez. Happy birthday!



• Zorionak Iontxuri, hilaren 24an 2 urte bete zituelako. Apeiren, Angelen, Israelen eta Rosaren panex, muxu handi bat.



• Zorionak Bizente Iriondo "Faruk"-i, bere lagunaren partez. Milagrosa egunean ongi pasa dezala opa diogu.



ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



701 Gr Jr6

Gazte 7-7/



San Frantzisko, 43-1. — Tel: 943 74 27 20 ELGOIBAR — Ego-gain, 12 beheha (sarrera S. Andres ibilbidetik) — Tel: 943 20 34 45 E1BAR

OLAIZAGA KIROLDEGIKO IGERILEKUA BERRIRO MARTXAN



- Igeriketa eskola
- Aquaerobika
- Ikastaroak (haur eta helduentzat)
- Gimnasia terapeutikoa uretan

ABENDUAN BAZKIDEEK ONDOKO ZERBITZUAK
DOHAINIK IZANGO DITUZTE:

- SAUNA
- TENISA
- HIDROMASAJEA
- SQUASHA



ORDUTEGI BERRIA GOIZEKO 7:00etatik GAUEKO 21:00etara

111111 11111111

txOtxongilook



HASILEKO "SO3REVENTO" TALDEARE\ ESKUMK

'Do_{Th} de est(heroc7'

antzeziana



HPRIKO AITZOKIA\
Azaroak 28, igancea
Alratsalc'eko 6 30ean



Kultura saila